

→ FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak behar dituen oinarrizko baliabideei buruz hitz egiterakoan, batez ere 3 baliabide mota hartu behar ditugu kontuan: baliabide fisikoak, intelektualak eta finantza-baliabideak.

Lehenik eta behin, gure ustez ordenagailuak izango lirateke gure baliabide fisikoak, gailu hori ezinbestekoa da gure proiektua hasteko, programa informatikoen inguruan biratuko baita, horregatik, proiektu digital bat izango dela esan dezakegu.

Bigarrenik, baliabide intelektualak ditugu; horiei buruz hitz egiten dugunean, informatikari batek gure laneko softwarea programatzeko duen trebetasunaz ari gara, eta, gainera, programa saltzen dakien norbait beharko dugu, nahiz eta uste dugu taldeko kideren batek negozioetarako gaitasuna duela eta ez dugula inor kontratatu beharko prozesu hau burutzeko.



Azkenik, finantza-baliabideak, orain norbait bilatu beharko dugu laguntzeko eta administrazio eta kontabilitate prozesu guztiak bideratzeko, hala nola finantza-aholkulari bat.

Gu saiatuko gara gure oinarrizko ideia optimizatzen, proiektu hau abiarazteko erabili izan duguna, baina, horretarako, lehendik aipatu ditugun aditu askoren laguntza beharko dugu.